



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK BAZTERTU EGIN DITUE EKONOMIA SUSTAPENA ETA IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA SAILETAKO AURREKONTUEN AURREAN AURKEZTUTAKO ZUZENKETA-ESKE PARZIALAK

- **Ogasun eta Finantzetako Batzordean gaur egindako bilkura biak ixteko, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek oposizioaren 152 zuzenketa-eske baztertu ditue**

(Bilbon, 2021eko abenduaren 17an). 2022ko Bizkaiko Aurrekontuen zuzenketa-eske parzialen eztabaidak bigarren jardunaldia bete dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantzetako Batzordean. Atzo gertatu zan moduan, aldundia babesten daben taldeek, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak, baztertu egin ditue oposizioaren hiru taldeek (EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia eta Talde Berezia-PP Bizkaia) Ekonomia Sustapena eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala sailtako kontuak aldatzeko aurkeztu dituen zuzenketa-eske guztiak. Sail horreek 79,6 eta 67,3 milioi euro izango ditue, hurrenez hurren, datorren urtean.

Lehenengo saioan, Batzar Nagusietako taldeek Ainara Basurkok zuzentzen dauen saileko aurrekontuak jaso dituan 98 zuzenketa-eskeak eztabaidatu eta bozkatu ditue. Horreetatik heren bat Talde Berezia-PP Bizkaiak aurkeztu ditu, “10 milioi euroko, guztizko zenbatekoaren % 31,7ko” eraginagaz, Bizkaia eraldatzeko eta “euspeneko aurrekontu izatetik suspertzeko aurrekontu” izatera igaroteko.

“Beharrezkoagoak” diran beste zeregin batzuetarako baliabideak lortzeko asmoz, Elkarrekin Bizkaia BECera, Ekintzailtza Zentrorako, Urduliz Torreko Bizkaia 42 proiekturako, Energy Intelligence Centerrerako (EIC), Nagusi Intelligence Centerrerako edo Meatzaldea-Ezkerraldea Parke Teknologikorako partida ekonomikoak murrizteko edo ezabatze eskatu dau, saltoki txikiak suspertzeko laguntza barriak emonez.

Eta EH Bilduk, kanpoan turismoa sustatzeko eta ekitaldi handiak bultzatzeko partiden murrizketan jarri dau arreta, gertuko turismo jasangarrira bideratzeko, besteak beste. EICren aurrekontua murriztean be zentrau da, enpresa txiki eta ertainetarako eta enpresa ez-teknologikoetarako laguntzak sendotzeko. Eskualdeko garapenerako, talde moreagaz bat etorri gizarte-enpresak sortzeko, eta ostalaritza eta merkataritza digitalizetako baliabide gehiago bideratzearen aldeko apustua be egin dau.

Modu berean, momentuz, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Sailaren aurrekontu-erespenak ez dau aldaketarik jasango, Batzar Nagusietako taldeek 54 aldeketa



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

proponidu dituen arren. Adibidez, Talde Berezia-PP Bizkaiak Gaztelugatxerako, abeltzaintzari otsoen erasoengaitik emon beharreko laguntzetarako edo basozaintzako prestakuntzarako eta ekipamendurako diru gehiago emotea proponidu dau. Basurdeen eta orkatzen uxaldiak areagotzeko edo Gorlizko fauna berreskuratzeko zentroa jentearentzat edegiteko eskatu diran partidak be ez dira onartu.

Beste alde batetik, Elkarrekin Bizkaiak energia-eraginkortasuneko eta klima-aldaketaren kontrako proiektuetarako partidak handitzea eta Aldundiaren esku dagozan basoen kontserbazinoa sustatzeagaz zerikusia daukienak handitzea proponidu dau. Modu berean, Karpinerako 200.000 euro emotea eskatu dau, eta Karrantzan araztegi bat eregiteko eta Errementarien tunela bide berde moduan berreskuratzeko prozesuan parte hartzeko partidak sortzea. Jeltzaleek eta sozialistek ez deutse uko egin Sopena eta Castro Urdiales lotzen dituan galeria finantzeteari; izan be, Bizkaiko Batzar Nagusietan aho batez onartutako mozinoa da. Halanda be, ez da sartzen sailak datorren urterako bizikletaren arloan dituan "lehentasunetan".

Azkenik, energia-eraginkortasuneko proiektuak eta tokiko komunitate energetikoak sortzeko gehigarria bultzatzearen alde be agertu da EH Bildu. Zuzenketa-eske sorta bategaz, talde horrek "basoen beste irudi bat marraztea" lortu gura dau, pinuaren eta eukaliptoaren presentzia txikiagoa daukan baso jasangarriagoa izateko. Horretarako, beharrezkotzat jotzen dau udalei baso-lurrak erosten eta baso-barritze proiektuetan laguntzea. Ganera, beste ekoizpen-eredu bat sortzeko laguntza gehiago eskatu ditu jasangarritasunerako bidean joango diran ustiategiak bultzatuz, eta 5 milioi euro Ur Partzuergotik kanpo dagozan udalerrietako ur eta saneamendu azpiegituretarako.

HURRENGO BATZORDEAK:

Astlehena 20

09:30 ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA
15:00 HERRI ADMINISTRAZIOA ETA ERAKUNDE HARREMANAK
17:00 GIZARTE EKINTZA

Martitzena 21

12:00 OGASUNA ETA FINANTZAK



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA RECHAZAN LAS ENMIENDAS PARCIALES DE LOS PRESUPUESTOS DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, Y SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL

- **Las dos sesiones celebradas hoy en el seno de la comisión de Hacienda y Finanzas se cierran con el rechazo de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos de las 152 enmiendas debatidas.**

(Bilbao, a 17 de diciembre de 2021). El debate de las enmiendas parciales a los Presupuestos de Bizkaia de 2022 ha celebrado hoy su segunda jornada en la Comisión de Hacienda y Finanzas de las Juntas Generales de Bizkaia. Como ya sucediera ayer, los grupos junteros que apoyan al Gobierno foral, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, han rechazado todas las enmiendas que habían registrado los tres grupos de la oposición (EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y Grupo Mixto-PP Bizkaia) para cambiar, en este caso, las cuentas de Promoción Económica, y Sostenibilidad y Medio Natural, que contarán con 79,6 y 67,3 millones de euros, respectivamente, el año próximo.

En la primera sesión, los grupos junteros han debatido y votado las 98 enmiendas que ha recibido el presupuesto del área foral que dirige Ainara Basurko. Un tercio de ellas han sido presentadas por el grupo Mixto-PP Bizkaia con un impacto de “10 millones de euros, el 31,7% del montante total” para transformar Bizkaia e impulsar que se pase “de un presupuesto de contención a uno de recuperación”.

Con la intención de obtener recursos para otros menesteres “más necesarios”, Elkarrekin Bizkaia ha solicitado reducir o eliminar partidas económicas para el BEC, el Centro de Emprendimiento, el proyecto Bizkaia 42 de Torre Urduliz, el Energy Intelligence Center (EIC), Nagusi Intelligence Center o el Parque Tecnológico Meatzaldea-Ezkerraldea, sufragando con ellas, entre otras cuestiones, la regeneración del pequeño comercio.

Por su parte, EH Bildu ha puesto énfasis en la reducción de partidas de promoción turística en el exterior y de fomento de grandes eventos, para orientarlas al turismo “de cercanía y sostenible”, entre otros destinos, así como una reducción del presupuesto del EIC para fortalecer los apoyos a las pymes y a “empresas de carácter no tecnológico”. La coalición abertzale solicitaba que se incorporasen más recursos también para el desarrollo comarcal, la creación de empresas sociales (esto en coincidencia con el grupo morado), y la digitalización de la hostelería y el comercio.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Asimismo, el dictamen presupuestario del departamento de Sostenibilidad y Medio Natural no sufrirá, de momento, ningún cambio, pese a que los grupos junteros planteaban 54 modificaciones. Por ejemplo, el grupo Mixto-PP Bizkaia ha planteado añadir más dinero para Gaztelugatxe, así como para ayudas ganaderas por ataques de lobos o para formación y equipamiento de la guardería forestal. Tampoco han salido adelante otras demandas para incrementar las batidas de jabalíes y corzos, o para abrir al público el centro de recuperación de fauna de Gorliz.

Por su parte, Elkarrekin Bizkaia ha propuesto aumentar las partidas destinadas a proyectos de eficiencia energética y lucha contra el cambio climático, e incrementar las que tienen que ver con el fomento de la conservación de los bosques forales. Asimismo, ha pedido que se aporten 200.000 euros para El Karpin, y crear partidas para construir una depuradora en Karrantza y coparticipar en la recuperación del Túnel de Herreros como vía verde. Jeltzales y socialistas no se han negado a financiar la galería que une Sopuerta y Castro Urdiales, ya que es una moción aprobada por unanimidad en la Cámara vizcaína, aunque “no entra en las prioridades” ciclables del departamento para el próximo año.

Por último, EH Bildu ha apoyado también incorporar proyectos de eficiencia energética y un extra para la creación de comunidades energéticas locales. “Dibujar otra imagen forestal” es el objetivo que persigue este grupo con un paquete de enmiendas para lograr un bosque más sostenible con menos presencia del pino y el eucalipto. Para ello, ven necesario apoyar a los ayuntamientos en la compra de terrenos forestales y en proyectos reforestación. Además, han pedido más ayudas para crear otro modelo productivo con explotaciones que caminen hacia la sostenibilidad y 5 millones para infraestructuras de agua y saneamiento en municipios que estén fuera del Consorcio de Aguas.

PRÓXIMAS SESIONES:

Lunes 20

09:30 H. EMPLEO, INCLUSIÓN SOCIAL E IGUALDAD

15.00 H. ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES

17.00 H. ACCIÓN SOCIAL

Martes 21

12.00 H. HACIENDA Y FINANZAS